

HAUTAKETA-PROZESUAREN LABURPENA

BEZEROEN IKT TEKNIKARIA

LANPOSTUA	Bezeroen IKT teknikaria
LANPOSTUAREN MISIOA	Gipuzkoako Administrazio Publikoaren inguruko bezeroekin (udalak, mankomunitateak, etab.) hitz egitea, haien beharretara ondoen egokitzen diren IKT arloko zerbitzuak eskaintzeko, haiek zehazten eta ezartzen lagunduz, baita erabiltzaileei laguntza funtzionala eta zerbitzuen erabilerari buruzko prestakuntza emanez ere.
BALDINTZAK (besteak beste) (Xehetasun gehiago bigarren oinarrian)	<ul style="list-style-type: none"> • TITULAZIOA: Teknologiaren arloarekin lotutako espezialitateen ingeniartzako gradua, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua edo antzekoak. • LAN-ESPERIENTZIA: Bi urteko esperientzia bezeroarekiko harremana eskatzen duten IKT arloko lanpostuetan, IKT proiektuen/prozesuen bizi-zikloko edozein fasetan. • EUSKERA: C1 (hautaketa-prozesuan egiaztatu ahal izango da).
ESKAINTZEN DA	<p>Plantillan kontratu mugagabearekin sartzea eskaintzen da.</p> <p>Informazioaren sistemen eta teknologien sektorean garapen profesionaleko potentzial handia duen lanbide- eta erakunde-proiektu sendo batean sartzea planteatzen da, aldaketa teknologikoaren abiaduraren eta belaunaldi-erreleboaren egungo testuinguruan. Testuinguru horretan, beharrezkoa da gure bezeroek behar dituzten proiektu estrategikoei eta eraldaketa-prozesu interesgarriei ekitea, herritarrei zerbitzua emateko bokazioarekin arreta emateko, arintasun, gardentasun eta irisgarritasuneko baldintzetan irtenbideak eskainiz. Era berean, familia eta lana bateragarri egiteko neurrien multzo zabala proposatzen da.</p> <p>Hasierako ordinsaria: Urteko 47.087,88 euro gordinak.</p> <p>Proiektzio profesionalerako aukera.</p>
PARTE HARTZEKO ESKABIDEEN AURKEZPENA (Xehetasun gehiago hirugarren oinarrian)	<ul style="list-style-type: none"> • www.izfe.eus/eu/lanpostu-deialdia-2025 (“Izen-ematea” atalean) dagoen estekan eskuratu ahal izango den formulario elektronikoaren bitartez. • EPEA: 2025eko urtarrilaren 27tik 2025eko otsailaren 16ra arte, biak barne. • Curriculum Vitae eguneratua eta eskatzen den esperientzia profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuko dira. • Eskabidea elektronikoki sinatu beharko duzu. Horretarako, indarrean dagoen ziurtagiri digitala eduki beharko duzu.
HAUTATZE-PROZESUA (Xehetasun gehiago seigarren oinarrian)	<p>Hautaketa-prozesua fase hauetan banatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1 FASEA: Gaitasun-azterketa eta/edo gaitasun profesionalaren azterketa - 2 FASEA: Elkarrizketa(k) eta Anlisi Pertsonala - 3 FASEA: Merituen balorazioa (lanbide-esperientzia eta prestakuntza osagarria)
INFORMAZIOA ARGITARATZEA	<p>www.izfe.eus web-orriaren bitartez egingo da (<i>Lanpostu deialdiak</i> atala):</p> <p>www.izfe.eus/eu/lanpostu-deialdia-2025</p> <p>Hautagaien identitatea jasoko da, eskabide bakoitzari esleituko zaion kode bat erabiliz, eskabidea formulario elektronikoaren bidez tramitatu ondoren.</p>